


311. alea - 2025eko azaroa
Debako herri aldizkaria

Zuhaitza euskara
aldizkaria

Berriketan



**Berriketan-en
lekukoa hartzeko
sortu da Barrena**





AURKIBIDEA



BERRIKETAN 311

2025eko azaroa

Azaleko irudiaren egilea:
Nerea Bedialauneta



10 ERREPORTAJEA
Abian da, beste urte batez, Mintzalaguna egitasmoa. Zer diote partaideek?



14 BARRENA
Hauxe da Berriketan aldizkariaren azken alea, Barrena proiektua abiatuko baita abenduan



20 INKESTA
Gabonak ate-joka dauden honetan, hainbat herritarrekin hitz egin dugu



22 ELKARRIZKETA
Hecetu Welo taldeak argitaratu duen lehen diskoaz aritu gara Pablo Berrizbeitiarekin



26 ALBISTEAK
Egitarau oparoa dakar aurten bosgarrenez egingo den Euskeraz Bagera zikloak



28 AGENDA
Datozen asteotan egingo diren jarduerak eta ekimenak jaso ditugu atal honetan

Jarrai gaitzazu!



berriketan.eus

Zuhatz **euskara**
menc.deba **elkartea**

LAGUNTZAILEAK



Debatu Udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

ARGITARATZAILEA

Zuhatz Euskara Elkartea

HELBIDEA

Ifar kalea, 12 behe. 20820 (Deba)

TELEFONOAK

943 19 13 83 / 632 04 33 22

HEDABIDEAREN E-MAILA

berriketan@berriketan.eus

ELKARTEAREN E-MAILA

koordinatzailea@zuhatz.com

ERREDAKZIOA

Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta

eta Alex Turrillas

KOORDINATZAILEA

Izaro Aulestiarte

PUBLIZITATEA

Joseba Escudero eta Alex Turrillas

LOGOTIPOAREN DISEINUA

Iñaki Elosua

MAKETAZIOA

Maku Oruezabal

TIRADA

1.400 ale

MAIZTASUNA

Hilabetekaria

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

LEGE GORDAILUA

SS/246/2009

ISSN: 2171-7656

Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@berriketan.eus helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

Gutunak



'Ohiko susmagarria' Deban

Normalean ez naiz trapu zikinak kaleratzearen aldekoa. Hala ere, kasu honetan, pasa den urriaren 29an eta 30ean Deban niri gertatutako anekdota baten berri ematea gustatuko litzaidake.

Aurreko urriaren 29an, trenean Debara iritsi eta, goizeko 08:00etan bankuan lanera sartu aurretik, eguna energiaz hasteko intentzioarekin goizero egin ohi dudana bezala, hondartza ingurutik pasealdi bat egitera joan nintzen.

Cardenas pasealekutik oinez nindoala, beren autoan zihoazen hirizaintzako bi agenterekin egin nuen topo. Oinezkoentzat egindako pasealekuaren egoera traketsa ikusita, batez ere bertatik puntualki ibiltzen diren autoen eta kamioien eraginez eta neguko denboraldiak urteetan eragiten dituzten triskantzak direla medio, xelebrea iruditu zitzaidan lasaitasuna gailentzen den goizeko ordu horietan oinezkoentzat egindako pasealeku batetik berez herria zaindu eta herritarrentzat eredu izan beharko liratekeen hirizaintza agenteak autoan igarotzen ikustea, eta udaletxean hori zuzena ote zen galdetzea otu zitzaidan.

Printzipioz, kontsulta egin eta ez nion garrantzi gehiagorik eman, hurrengo egunean, urriaren 30ean, ordu berean, berriz ere lanera bidean hotelaren aurretik igarotzen ari nintzela, kasualitateetan sinesten duenarentzat kasualitatez, hirizaintzako agente berberak autoan zuzenean nigan gerturatzen ikusi nituenara arte. Nire aurrean autoa gelditu, jaitsi eta identifikatzeko eta nortasun agiria erakusteko eskatu zidan agenteetako batek. Bere esanetan, agenteen lana oztopatzen saiatzen ari nintzen eta, beraz, pertsona susmagarritzat nindeukaten. Susmagarri izateagatik, gainera, ni katxeatzeko eskubidea zeukala ohartarazi zidan agenteak. Nik, nire aldetik, argi esan nion ez nuela ezer ezkututzen eta zuzena iruditzen bazitzaion egin zezakeela.

Nahi zituenak eta bi esaten ari zitzaidanez, bere jarrera indiskriminatua, erasotzailea eta guztiz lekuz kanpokoa zela adierazi nion agenteari. Eta orduan berak adierazi zidan bere lana zela ordu horietan pasealekutik solte dabil-tzan lau hankatuko etxeko animalia arriskutsuak eta beren jabeak kontrolatzea eta "heztea" eta bestelako gaizkileak harrapatzea.



Nire lanpostura bidean nindoala, gertatutakoa sinetsi ezinda, berriz ere udaletxean kontsulta egitea erabaki nuen hirizaintzako agenteen jarrera gaur egun orokorrean horrelakoa ote den jakiteko, nire kasua beharbada agente puntual horrek izan dezakeen beste arazoren batekin lotua egon zitekeen susmoa bainekuan.

Goiz osoan zehar egoera "irreal" hori burutik kendu ezinik nenbilenez, lehendabiziko eginbeharra agenteak nortzuk ziren identifikatzea zela bururatu zitzaidan. Beraz, lanean tarte bat eduki nuenean, udaltzaingora gerturatu nintzen informazio hori lortzeko asmoz.

Simon Berasaluze plazako lokalean sartu eta berehala agente berarekin egin nuen topo aurrez aurre. Momentuan nabaritu nion benetan haserre zegoela; esan zidan baze-kiela jada beste kexa bat jarri nuela udaletxean (beharbada horrela esango zaio gaur egun kontsulta bat egiteari) eta gogorarazi zidan egiten ari nintzena, bere esanetan, poliziaren lana oztopatzen saiatzea zela, hori oso grabea dela eta ondorio larriak izan ditzakeela niretzat. Gainera, berriz gogorarazi zidan pertsona susmagarritzat hartzen ninduela eta kalean ikusten banau berriz ere identifikatuko eta katxeatuko nuela.

Niri betidanik iruditu zaizkit goraipatzekoak Debako hirizaintza agenteen eta herritarren arteko sintonia, elkar-lana, adeitasuna eta orokorrean herrian beti egon den giro bikaina eta pentsatu nahi dut nirea gertaera puntual bat besterik ez dela... Hala ere, nork daki...

Aitor Ojaguren



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
 Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
 E-mail: asketa@telefonica.net
 www.asketa.net

ALMACÉN:
 Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
 20850 MENDARÓ (Gipuzkoa)





Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



SARA ARIN

Antifaxismoa, emakumeon askapenerako borroka

Azkenaldian egunkarietako lerroburuak bete dituzten bi gertakarien inguruan hitz egin nahiko nuke; Iruñeko karpa unibertsitarioan izandako talde bortxaketaz eta mugimendu antifaxistak Vito Quiles pseudokazetari faxista Iruñeko campusetik kanporatzea lortu izanaz. Bi gaiek zer lotura eduki dezaketen galdegingo diozue zeuen buruari agian; bada, badute eta handia gainera.

Izan ere, aipatutako gertakarien ostean, hainbat izan dira mugimendu antifaxista modu batera edo bestera seinalatzeraz iritsi direnak. Voxeko liderra den Abascal faxismoari aurre egin eta talde bortxaketari erantzun ez izana leporatzen die gazteei. Alderdi ultraeskuindarrari, ordea, gutxi axola zaio indarkeria matxista eta auzi hau talde bortxaketako erasotzaileen nazionalitatean zentratzeko, immigrante ilegalak jopuntuan jartzeko eta posizio arrazistak indartzeko erabili du, besterik ez. Bestetik, badira borroka antifaxista emakumeen askapenerako borroka ez dela esatera iritsi direnak ere eta antifaxismoa maskulinitatea, futbola eta gimnasioaren subkulturarekin lotu dutenak.

Iritzi hauek, ordea, ideologia faxisten gorakadaz eta horrek emakumeentzat dakartzan ondorioez hitz egin beharrean, mugimendu antifaxistaren iruditegi oker bat zabaltzen dute. Ez al du ultraeskuinak abortuaren aurka egiten, indarkeria matxista ukatzen eta emakumea subjektu prekarizatu moduan erreproduzitzen? Faxismoari aurre egitea, beraz, emakumeon auzia ere bada. Premiazkoa zaigu kaleak hartzea; faxismoaren eta matxismoaren aurrean, emakumeak lehen lerrora!

"Bi gaiek zer lotura eduki dezaketen galdegingo diozue zeuen buruari agian; bada, badute eta handia gainera"




ekoðenda,
dietetika,
belardenda


ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia - Osteopatia
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Podologia
- * Dietista

Iersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



Ostolaza Kalea 25.
 20820 DEBA (Gipuzkoa)
 Telf.: 943 191 818



1927

Artzabalgo zentral elektrikoa

Hilario Allicak 1927an egindako argazkian Artzabalgo zentral elektrikoko operadorea ikus dezakegu; lehen planoan turbina agertzen da. 1924ko otsailaren 17ko osoko bilkuran onartu zuen udalak zentral hori eraikitzea, 18.899 pezetako aurrekontuarekin, eta transformadorearen erosketari AEG Iberica Electricidad enpresari esleitu zitzaion 1926ko martxoaren 11n. Zentraleko turbina Lasturko kanaletik iristen ziren urei esker mugitzen zen —hodi bertikal handi batetik jaisten zen ura zentralera—.

Bitxikeria gisa, 1947ko apirilaren 13an, Casino eta Miramar zinemetan proiektzioa hastera zihoan unean, herrian argia joan zen, zinemazaleen haserrearekin. Eta argia ez zela itzultzen ikusita, alkateak udaltzaingoko kaboa bidali zuen zentrolean zer gertatzen zen ikustera. Bada, azken horrek zentrala itxita aurkitu zuen eta langileak ez zegoen bertan; hainbat ikerketa egin ondoren, Lasao baserrian aurkitu zuten Gumersindo Andonegui, lasai asko meriendatzen. Espero bezala, funtzionarioa zigortu egin zuten zerbitzua uzteagatik. Arrautzak txorizoarekin jaten ari zen bitartean saltatu zuen zentraleko automatikoak.

Alex Turrillas Aranzeta



LANDER ARANBERRI

"Bakean dagoena..."

Etxebizitzarekin eta osasun-sistemeekin batera, segurtasunarena omen da euskal gizartearen kezkarik handienetako bat. Gaur Egunek arma zuridun borrokak aipatzen ditu etengabe; *Lo que no te cuentan de...* taldeek Pello Reparazek baino fan gehiago izaten dituzte...

Arazoak larria behar du izan eta gurera ere iritsi dela uste dut.

Sanrokeetan, James Bonden filmetako antolakunde bat ibili dela uste dut, dultzaineroen dianaren orduan atentatu ikaragarriren bat exekutatu nahian. Eskerrak zezen plazan izaten ditugun eliteko indarrek ez ziguten pasatzen utzi, bizia salbatuz. Cardenas pasealekuan ere, *Daesh*-en furgonetak harrapaketa masiboren baterako prestatzen dabiltzala uste dut. Eskerrak prebentzio neurri proportzionalak hartzen ari garen, Whatsappetik jasotako mezu luze batean enteratu naizenez...

Matrix-eko okerreko pilula hartzearen kontua izango da, baina nago Deban, orain arte bederen, ez zegoela segurtasun krisi larriegirik. Eta baten batzuk existitzen ez diren arazoei erremedioa jarri nahian dabiltzala. Mutrikun, futboleko entrenatzaile zena dabil kaleak patruilatzen, eta ez nuke esango Sodoma eta Gomorraren nahaste modernoren bat bihurtu denik.

Burdin-Kurutzen irteerek mendizaletasunugarrik piztu ez zidaten arren, abeltzainek bide alboan utzitako folio plastifikatuekin akordatzen naiz oraindik: "Bakean dagoena, bakean utzi", jartzen zuten normalean, marrazkitxo eta guzti. Eta aizu, gizakiok ere badakigu hozka egiten bakean uzten ez gaituztenean.

"Matrix-eko okerreko pilula hartzearen kontua izango da, baina nago Deban, orain arte bederen, ez zegoela segurtasun krisi larriegirik"

Arteondo
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

Kolegiatu zkia.: 20001123

Amaia & Esnaola
ODONTOLOGIA

Fermin Calbeton 19- 3 ezk. Eibar
943 20 72 17 | 660 42 28 08
amaia@esnaolaodontologia.com

Bi emakumetik batek indarkeria jasan du Euskadin

Ez da
zure arazoa
soilik,
gurea ere
bada

azaroak
25

Emakumeen
kontrako Indarkeria
Desagerrarazteko
Nazioarteko Eguna

DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU **24 h**

900 840 111





REXU ARAKISTAIN

Gertakizun bat

Hiriburura joan naiz eta supermerkatu batean sartu naiz; handia da benetan.

Asteburua izanik, jendez beteta dago dena, beti bezala. Eskailera mekanikoak gora eta behera dabilta, pertsona guztiak dotore-dotore doaz jantzita burutik hasi eta hanka muturreraino, inork barre bakar bat ere ez du egiten, denak inguruan biraka dabilta, bat nahi gabe ukitu, besteari laga pasatzen... Pertsona bat ikusi dut aldagelara joaten, beso baten gainean arropa pila bat daramala; beste bat hor dabil kolonia botatzen, eta gero beste kolonia bat... Ia zorabiatu egin naiz!! Azkar alde egin dut handik.

Pixka bat galduta nenbilela sumatu duen neska polit bat hurbildu zait eta frantsesez hitz egin dit. Eta euskalduna naizela erantzun diot nik. "Ni ere bai! Nongoa?", galdetu dit berak zuzenean. Azaldu diot Debakoa naizela, baserrikoa, eta berak aipatu dit Usurbilgoa dela. Bada, kontatu dit bera ere baserrikoa dela eta etxean barazkiak eta animaliak dituztela, baita aker bat ere...

"Lagunduko dizut zerbaitetan?", galdetu dit gero. "Ez, eskerrik asko!", erantzun diot nik.

Poltsa zaintzeko esan didate etxean. Supermerkatutik irten baino lehen, kafe bat hartu eta komunera joan naiz. Oso arratsalde atsegina izan dut.

**"Pixka bat galduta
nenbilela sumatu
duen neska polit bat
hurbildu zait eta
frantsesez hitz egin dit.
Eta euskalduna naizela
erantzun diot nik"**

ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Debatek
INFORMATIKA

Aholkularitza
Produktuen salmenta
Zerbitzu teknikoak

WhatsApp 747 42 39 01
Instagram Debatek_



ONDARGAIN
TXIRINGITUA

Gosariak, plater konbinatuak,
pizzak, hanbursesak eta
zuzeneko musika!

“Euskaraz aritzeko eta jendea ezagutzeko aukera ederra ematen du Mintzalagunak”

Mintzalaguna programak urteak daramatza milaka pertsonari euskalduntzeko bidean laguntzen; azken datuen arabera, Euskal Herri osoko 8.000 bat lagunek parte hartzen dute gaur egun egitasmoan. Doakoa da, eta boluntarioa. Ikasturte hasieran zabaldu zuten taldeetan izena emateko aukera eta uneotan hiru talde daude martxan Deban. Euskaldunak sortzeko eta euskara hauspotzeko ekimena gertutik ezagutu nahian, programan parte hartzen ari diren *bidelagunekin* eta *bidelariekin* hitz egin dugu oraingoan.

Beste urte batez, martxan da berriz ere Mintzalaguna egitasmoa Deban. Zuhatza Euskara Elkarateak dinamizatzen du ekimena, Taupa euskaltzaileen mugimenduarekin elkarlanean, eta euskararen erabilera sustatzea du helburu. Finean, euskaraz trebatu nahi duten pertsonentzako programa bat da, erabileran zentratzen dena. *Bidelagunak* (euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak) eta *bidelariak* (mintzapraktika egin nahi dutenak) elkartzen ditu egitasmoak. Horrela, urteak daramatza milaka pertsonari euskalduntzeko bidean laguntzen.

Eremu akademikotik kanpo garatzen da Mintzalaguna, aisialdian, eta helburua euskaraz aritzeko guneak eta uneak eskaintzea da; parte-hartzaileei elkarrekin hitz egiteko aukera ematen die, betiere gune informaletan. Izan ere, hizkuntza

ikasiaz izan arren, askok ez dute lasai eta eroso hitz egiteko espaziorik izaten eta ekimenak horretarako gune segurua eskaintzen die, hain justu. Rosa Lopez *bidelariak* adierazi duenez, adibidez, programak euskaraz "beldurrik gabe" hitz egiteko aukera eman dio. "Euskara ikasten jarraitzeko eta beste pertsona batzuk ezagutzeko helburuz" erabaki zuen izena ematea eta taldean aritzeak asko lagundu diola aitortu du: "Gehiago hitz egiten dut, beldurra galdu dut eta konturatu gabe asko ikasten ari naiz".

Deban astean behin elkartzen dira partaideak, talde txikietan; tabernetan edo kafetegietan egiten dituzte mintzapraktika saioak, lagun giroan. Ordubetez aritzen dira, euskararen erabilera eguneroko bizitzan txertatuz. Mariaje Carrillo *bidelagunak* dioenez, "helburua argia da: euskaraz aritzeko aukera ematea. Bai-

Astean behin elkartzen dira, euskararen erabilera eguneroko bizitzan txertatuz

na, bide batez, helburu bera duten pertsonak ezagutzeko aukera ederra ere ematen du". Azaldu duenez, "saioetan lasai hitz egiten dugu, huts egiteko beldurrik gabe, eta horrek konfiantza ematen die partaideei".

Esperientzia aberasgarria

Orain arteko esperientziarekin gustura dagoela nabarmendu du Marili Perosanz *bidelariak*, "lotsa galtzen joateko balio izan didalako". Eta ildo beretik mintzo da Fede Martinez ere: "Hasieran asko lotsatzen nintzen eta orain ausartagoa naiz. Ingurukoek



ere nabaritu dute aldaketa, baina oraindik kostatzen da ulertzea eta elkarrizketa bat jarraitzea", aitortu du. Bere esanetan, ekimena oso lagungarria da euskara ikasten ari direnentzat. "Euskaltegian gauza asko ikasten ditut, batez ere gramatika, baina euskara ikasteko beharrezkoa da hitz egitea eta nik etxean eta lagunekin ez dut nahikoa hitz egiten", gaineratu du.

Asteroko saioa ondo etorri zaio-larri dio Josune Artetxe *bidelagunak* ere: "Hasi nintzenetik nire euskara berreskuratu eta gaitasuna lortu dut". Eta Mari Carmen Martinez *bidelariak* ere taldean euskaraz jardutearen garrantzia azpimarratu du. "Taldea ikasi dut elkarrizketak lasai hartzen. Niretzat oso garrantzitsua da euskara poliki entzutea eta ulertzea; azkar hitz egiten badute, ez dut dena ulertzen eta jokoz kanpo geratzen naiz. Horregatik, niri

oso ondo etortzen zait programan parte hartzea".

Karmele Zulaika *bidelagunak* azaldu duenez, "eguneroko gauzez aritzen gara saioetan: herriko gorabeheraz, bakoitzaren egitekoaz, asteburuko kontuez, munduan gertatzen denaz...". Halaber, noizean behin talde guztiak batzen dira, jardueraren bat elkarrekin egiteko. "Afari-meriendaren bat egiten dugu, adibidez, harreman sarea zabalduz", gaineratu du Carrillok. "Baten batek helburu hori baldin badu, proba egiteko esango nioke. Uste dut ez dela damutuko".

8.000 partaidea

30 urte baino gehiago ditu Mintzalaguna egitasmoak. Taupak emandako azken datuen arabera, Euskal Herri osoko 8.000 bat lagunek parte hartzen dute. Gaur-gaurkoz, Deban hiru talde daude martxan:

"Saioetan lasai hitz egiten dugu, huts egiteko beldurrik gabe, eta horrek konfiantza ematen die partaideei"

horietako bi astelehenetan elkar-tzen dira (bata 15:30etan eta bestea 16:00etan) eta hirugarrena, berriz, ostiraletan (11:00etan). Urrian osatu zituzten taldeak, baina urte osoan eman daiteke izena.

Doakoa da bertan parte hartzea, eta boluntarioa. Guztiei irekita dagoen arren, antolatzaileek gogoraziti dute komeni dela gutxieneko euskara maila izatea. Interesatuak Zuhatza Euskara Elkarerajobehar-ko dute (kontaktua: 943 19 13 83 edo koordinatzailea@zuhatza.com).

Azkenengo elurtea hondartzan

Arg.: NEREAALLIKA

2018ko otsailaren 28an zuri esnatu zen Debako hondartza. Elurrak goiz bat besterik ez zuen iraun, itsasotik etorritako fenomeno berezia. Ez dakigu noiz ikusiko dugun berriro; neguak gero eta epelagoak diren garai honetan, aldaketa klimatikoa agerikoa da. Horregatik, halako uneak gordetzea funtsezkoa da: irudi hau oroitzapen bat baino gehiago da, gure paisaiaren etorkizunaren inguruko galdera bat ere bada.





Abenduaren 19an kaleratuko dugu bailarako komunikabide berria: Barrena





Geu izaten jarraitzeko

Ermuko Euskal Birusa, Soraluzeko Pil-pilean, Elgoibarko Izarra eta Debako Zuhatza Euskara Elkarte

Abenduaren 19an Barrena astekaria eta *Barrena.eus* webgunea argitaratuko dira eta aurrerantzean bertan jarraitu ahalko dira Debako, Itziarko eta Debabarreneko gainontzeko herrietako berriak. Egun horretatik aurrera, beraz, Barrenak emango dio jarraipena Berriketan aldizkariak eta *Berriketan.eus* webguneak azken 27 urteotan tokiko aktualitatea lantzen egindako lanari. Barrena komunikazio proiektua bultzatu duten lau euskara elkarteek mezu bateratua kaleratu dute debabarrendarrei zuzenduta, *Geu izaten jarraitzeko* izenburupean.

Euskara eta euskal kultura biziberritzea da euskara elkarteon egitekoa; horretarako, jaio ginen eta ahalegin horretan dihardugu. Ahalegin horrek emaitza onak ekarriko baditu, ezinbestekoa da adi egotea gizar-tearen aldaketei eta haren arabera egokitzea eta berritzea elkarteon jarduna eta proiektuak, kasu honetan, hedabideak.

Gaur egun, hedabideek berebiziko garrantzia dute komunitategintzan eta hedabideen mundua oso azkar ari da aldatzen. Adituek iragartzen dutenez, datozen urteetan are azkarrago aldatuko da. Ondorioz, euskarazko tokiko hedabideek berritu beharra daukate gure komunitatearen oinarri izaten jarraitzeko eta, hain zuzen, horixe da Barrena, elkarrekin euskarazko hedabideak berritzeko abiatu dugun proiektua.

Marratzu dugun komunikazio proiektuak egitura indartsuagoa eta profesionalagoa izango du,

eduki multimedia gehiago eskaini ahalko ditu, eskaintzak urrunago hedatzeko aukera emango die komertzioei eta oro har difusio eta inpaktu handiagoa izango du debabarrendarron artean. Duen dimentsiogatik, Barrena izan daiteke azken urteotan Debabarrenean euskara biziberritzeko abiatu den ekimenik garrantzitsuenetakoa, garrantzitsuena ez bada.

Beraz, aurrera begiratu eta bideari elkarrekin ekingo diogu. Elkarrekin euskara elkarteak, euskaltzaleak, herrietako eragile sozialak eta komertzialak, erakunde publikoak, errealitate bihurtzeko debabarrendarrok behar dugun hedabidea, berritzailea eta euskalduna.

Horregatik, dei egiten dizuegu orain arte herrietako hedabideen irakurle, kolaboratzaile, laguntzaile eta komunitateko kide izan zareten herritar eta eragile guztioi babestu eta balia dezazuen Barrena, mundu zoro honetan geu izaten jarraitzeko.

“Aurrera begiratu eta bideari elkarrekin ekingo diogu”

“Babestu eta baliatu ezazue Barrena, mundu zoro honetan geu izaten jarraitzeko”

Batu eta berritu

Debabarreneko tokiko lau hedabidek —Mallabiko eta Ermuko Drogetenitturri-k, Soralueko Pil-pilean-ek, Elgoibarko eta Mendaroko Barren-ek eta Debako Berriketan-ek— indarrak batu eta bailarako komunikazio proiektu berria eratu dute: Barrena.

'barren

DROGETEN
ITTURRI

Berriketan

Pil-pilean



2025eko irailean Barrenak eta Arrate Irratiak lankidetzatza hitzarmena sinatu dute. Arrate Irratiak leku propioa izango du *Barrena.eus*-en eta bertan entzungai izango dira irratiko saiorik esanguratsuenak.

Produktuak (abendua 19tik aurrera)

Astekaria paperean

Barrena astekariak 32 orrialde izango ditu eta Debabarreneko herri guztietako informazioa eskainiko du. Debak eta Itziarrek tarte finkoa izango dute bertan. Herritarrek etxean jaso ahalko dute astekaria harpidetza bidez.

Barrena.eus agerkari digitala

Webgune bateratuak bailarako eta herriz herriko aktualitateari egingo dio jarraipena. Orain arte bezala, herritarrek bertan kontsultatu ahal izango dituzte albisteak, agenda, eskelak, komunitatea...



TOKIKOA

BERRITZAILEA

Barrena

Helburua

Komunikazioaren mundua eta herritarren kontsumo ohiturak oso azkar ari dira aldatzen. Horiek horrela, Barrenaren helburua da herritarren beharrei behar bezala erantzungo dien hedabide berritzailea izatea, erreferentzia debabarrendarren artean.

**2020ko
iraila**



Bilera
Gipuzkoako Foru
Aldundiarekin

Gogoeta
prozesua



Elkarlana ehuntzen
(Albiste trukea, inbertsio plan bateratuak,
formakuntza saioak)

**2023ko
abendua**

Bailaratzearen
aldeko hautu
estrategikoa

“Azken urteotan Debabarrenean euskara biziberritzeko bultzatu den ekimenik garrantzitsuenetakoa da”

Ermuko Euskal Birusa, Soraluzeko Pil-pilean, Elgoibarko Izarra eta Debako Zuhatza

Egitura berria

Lau euskara elkarteek Barrena Komunikazioa Koop. S. eratu dute 2025eko irailean. Irabazi asmorik gabeko kooperatiba da eta gobernantza publiko-sozialaren bidez kudeatuko da, hiru eragile nagusiren partaidetzarekin: euskara elkarteak (bazkide erabiltzaileak), langileak (lan-bazkideak) eta udalak (bazkide kolaboratzaileak). Eratze prozesua amaitutakoan, hiru eragileok gidatuko dute elkarrekin bailarako hedabidearen jarduna.

“Orain arte egindakoa asko da, baina orain arte egindakoa egiten jarraituta ez dugu aurrera egingo”

Jon Sarasua • Euskararen Gogoetagunea



Komunitatearekin batera

Barrenarentzat komunitatea helburu eta bitarteko da aldi berean. Komunitateari zerbitzu egokia eskaini ahal izateko ezinbestekoa da harekin batera lan egitea. Herritarrak, euskaltzaleak eta herrietako eragileak dira Barrenari benetako indarra emango diotenak. Barrenakide egitea izango da parte hartzeko eta abantailak eskuratzeko moduetako bat.



Egitura eta elkarlana indartu
Bateratze prozesuaren diseinua

2025eko iraila

Barrena kooperatiba eratu



Hitzarmen estrategikoa Arrate Irratiarekin

2025eko abenduak 19

Barrena astekaria eta webgunea **kalean!**

“Eskerrik asko 27 urte hauetan Berriketan egin duzuen guztioi”

Hogeita zazpi urtez etenik gabe argitaratu da Berriketan, baina azarokoa du azken zenbakia hilabetekari gisa paperean, abendutik aurrera ikusiko baitu argia Barrena komunikazio proiektu berriak. Periodiko formatuko Barrena astekariak eta *Barrena.eus* webgune bateratuak hartuko dute lekukoa eta, aurrerantzean, bertan eskainiko dute eskualdeko eta herrietako informazioa. Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, aurkeztuko dute proiektua Kultur Elkartearen (18:00etan).

"Zer den nork daki? Tipitaki-tapataki, nik bai, badakit". Titular hori zeraman 1998ko abuztuaren kaleratu zen Berriketan-en lehen zenbakiaren azalak. Erraz esaten den arren, hogeita zazpi urte joan dira ordutik eta 300dik gora ale argitaratu ditu aldizkariak ibilbide honetan (esku artean duzuen 311. zenbakia da).

Urte guztiotan, baina, aldaketa handiak izan dira bai jendartean, bai komunikazioaren arloan. Eta euskarazko tokiko hedabideek egoera berrietara egokitzeko ahalegina egin dute. Berriketan ez da salbuespena izan. Aro ezberdinak eta askotariko aldaketak izan ditu ibilbidean, bai lantaldean, bai edukietan, bai edizio sisteman, bai formatuan, bai diseinuan... Egiteko moduak aldatu dira funtsean, baina bada konstante bat komunikabidearen egitekoan; euskara sustatzeko bitarteko gisa jaio zen Berriketan, herriko kontuen eta bizitzaren lekuko izateko asmotan, eta ez du aldaketarik izan helburuetan.

Amagabea da hogeita zazpi urteko historian hedabideak bidelagun izan dituen Debako eta Itziarko herritarren eta eragileen zerrenda. Hor daude artikuluegileak, iritzi emaileak, elkarrizketatuak, argazkilariak, publizitatea lotu eta iragarkiak jarri dituztenak, make-tatzaileak, aleak banatzen lagundu dutenak... Ahaztu gabe, noski, ezinbesteko irakurleak. Zalantzarik gabe, denak izan dira beharrezko, denek sortu, elikatu eta egin dute Berriketan. Lerro hauen bitartez, komunikabidearen erredakzio taldeak eta elkarte zuzendaritzak urte



guztietako ezinbesteko ekarpena goraipatu eta eskertu nahi die modu batean zein bestean proiektu honen garapenean beren aletxoak jarri duten guzti-guztiei. Era berean, Barrena "denon eskura eta denon beharrei erantzuteko prest" egongo dela gogorarazi dute.

Debako eta Itziarko aktualitatea herritarrei helarazteko erronkak ez du etenik izango, baina hilabetekariak azarokoa du azken alea paperean eta datozen asteotan ikusiko ditugu *berriketan.eus*-en azken albisteak ere.

Elkarrekin

Euskarazko hedabideen loraldia 1980ko hamarkadaren bukaeran eta 1990ekoaren hasieran eman zen Euskal Herriko hainbat txokotan, baita Debabarrenean ere. Bidean dena ez da erraza izan, ordea. Eskualdeko herrietan ondo errotuta dauden arren, egitura txikiak izanik, tokiko hedabideek zailtasunak izan dituzte, adibidez, beharrei erantzuteko eta aukera berriak aprobetxatzeko. Horiek horrela, urteak pasatu ahala jabetu dira Debabarreneko komunikabideak elkarlana dela bidea.

Elkarlan horren fruitu da, hain justu, Barrena proiektua. Elkarrekin jarraituko dute bidea urratzen aurrerantzean, egitura eta lantalde bakar batean antolatuta. Dena den, helburua ez da herriz herriko produktuak kaleratzeari uztea eta soilik eskualde mailakoak sortzea. Alegia, orain arte bezala, bi izango dira komunikazio proiektuaren ardatzak: tokiko informazioa eta euskara.



Lukax Dorronsoro erredakzio taldearen bileran (2009).



Komunikazio taldeko kideak gogoeta prozesuan (2016).



'25 urte Berriketan' erakusketa (2023).



Koldo Aperribai eta Izaro Aulestiarte lantaldeko kideak (2009).



Zuhatzta Euskara Elkartearen gogoeta prozesua (2016).



Aldizkariaren 25. urtemugako ekitaldia (2023).



Zuhatzako bazkideak Barrena proiektuari buruzko bileran (2025).



Gabonen atarian

Hemen dira Gabonak, berriz ere, eta ziurrenik batzuk (ez guztiak) hasita egongo dira jadanik ospakizunetarako lehen prestaketekin: urteroko otorduak, opariak, erosketak... Inkesta moduko bat egin dugu oraingoan, herritarren iritzia jasotzeko. Gai oso ezberdinak jorratu ditugu, hala nola Gabonetako apaingarriak, loteria, arraina erosteko gomendioak edota data seinalatu hauetan dolaak eragindako sentimenduak.

Gabonak gainean ditugu eta laster ikusiko ditugu garai hauetan ohikoak diren apaingarriak eta argiak herriko kaleetan. Urteroko jarduera eta hitzordu bereziak ere izango dira aukeran, beti bezala: Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita, Errege Kabalgata, musika emanaldiak... Eta, zalantzarik gabe, eguberrietan egingo dira urteko erosketetako asko ere; kontsumoa biderkatu egiten da eta opariak egiteko eta ohiko otorduak prestatzeko, besteak beste, denda denda ibiltzen dira herritarrek.

Data kutunak dira batzuentzat, eta ez horrenbeste beste batzuen-

tzat. Arrazoi ezberdinak tarteko, hain zuzen, sentimendu eta emozio ezberdinak azaleratzen dira urteko sasoi hauetan.

Bada, nola bizi dituzte gure ingurukoek Gabonak? Tradizio zaleak al dira? Zer kontsumo ohitura dituzte? Zer gomendio ematen diete bezeroei? Aipatutako galdera horietako batzuk egin dizkie *Berriketan*-ek lau herritarri. Etxea txukun apaintzea-gatik ezagun den Marina Guridi, garaiotan lanez lepo dabiltzan Nerea Lazkano loteria sailtzailea eta Fernando de la Torre arrain saltzailea eta Iratxe Astigarraga Debako Death Cafe-ko kidea dira protagonistak.



"Sorpresaren bat ere egongo da aurten, baina lehiaketan ez dugu parte hartuko"



MARINA GURIDI

I. Balkoi lehiaketako irabazlea

Urteak daramatzazu Gabonetan balkoia txukun apaintzen. Nondik datorkizu zaletasuna?

Senarraren etxean beti apaintzen zuten etxea Gabonetan. Arbola eta jaiotza jartzen zituzten eta, horrez gain, etxea bera ere asko apaintzen zuten. Nire etxean ere antzeko ohitura genuen eta, beraz, bion etxeko ohiturei eutsi diegu. Dena dela, egia esan behar badut, etxea eta balkoia horrela dekoratzea senarraren kontua da; argazkiak ikusten aritu naiz eta hamar urte baino gehiago daramatzagu eraikina apaintzen.

Aurten noiz piztuko dituzue balkoi-ko argiak? Lehiaketan parte hartzeko asmorik baduzue?

Normalean abenduaren 8an, Kontzesio Egunean, pizten ditugu. Senarraren etxean eta nirean egun horretan jartzen genituen jaiotza eta apaingarriak, eta data mantendu dugu. Baina aurten argiak bezperan piztea aurreikusten dugu. Sorpresaren bat ere egongo da, baina lehiaketan ez dugu parte hartuko.

"Jendeak nahiago izaten ditu 0, 5, 7 eta 13an amaitzen diren zenbakiak"



NEREA LAZKANO
Loteria saltzailea

Noiz hasten da Gabonetako loteriaren salmenta? Azken ordura arte zain egoten al da jendea?

Uztailaren erdialdera ekartzen dizkigute Gabonetako zozketaren lehen dezimoak. Kostaldeko herria izanik, jende asko dator Debara egun-pasa, baita oporrak edo uda pasatzera ere, eta horietako askok loteria erosteko ohitura dute. Bestela, esango nuke urritik aurrera izaten dela mugimendurik handiena; konstantea izaten da jendearen joan-etorria.

Zeintzuk izaten dira gehien eskatzen diren zenbakiak?

Konturatu gara jendeak nahiago izaten dituela 0, 5, 7 eta 13an amaitzen diren zenbakiak; arrakasta handia izaten dute. Eta, horrexegatik, amaiera hori dutenak gure abonatuak zorbakien artean dauzkagu. Gabonetako zozketan hiru zenbaki oso-osorik saltzen ditugu gure administrazioan eta horietako bi urte osoan abonatuak zorbakiak dira: 72.905 eta 13.780.

"Lehenbailehen enkargatzea eta erostea gomendatzen diet bezeroei"



FERNANDO DE LA TORRE
Arrain saltzailea

Urteko sasoi honetan zeintzuk dira produktu izarrak arrandegian?

Legatza, zapoa, txipiroiak, almejak eta otarrainxkak.

Zer gomendatzen duzu?

Zer eta zenbat beharko duten garbi izanez gero, lehenbailehen enkargatzea eta erostea gomendatzen diet bezeroei. Erosketak, beranduenez, abenduko zubia baino lehen egiteko esaten diet, gerora prezioak garestitzen hasten direlako. Mahaian zenbat izango diren garbi ez duenari, berriz, aste horretan salgai dugun arrain freskoa eramatea gomendatuko nioke. Baina jendea ez dago horretara ohituta; izan ere, nahiago izaten ditu produktu bereziak.

Kontsumo ohituretan egon al da aldaketarik azken urteotan?

Garai batean txirla handi asko saltzen genituen, baina ikaragarri garestitu dira. Horren ordez, gauregun Frantzia molusku-hazkuntza tekniken bidez ekoiztutakoak eramaten dituzte jendeak, merkeagoak direlako.

"Nostalgiaz gogoratzen ditut janari berezi haiek eta sukaldeko usaina"



IRATXE ASTIGARRAGA
Debako Death Cafe-ko kidea

Gabonak ez dira garai alaiak denontzat, beste sasoi batzuetan baino nabarmenagoa izaten baita ez dauden hutsunea...

Nire kasuan ez dira alaiak izan azken urte hauetan. Sasoi batean familiar ospatzen genituen, oso gustura, gainera; sekulako gogoia izaten nuen data horiek iristeko. Baina denbora gutxian jende asko galtzen hasi ginen. Lehenengo amama hil zen eta urtebetera bi osaba. Handik urte gutxira, gainera, ama gaixotu eta hil zen. Harrezkero, Gabonak are tristeagoak izan dira niretzat.

Horrelako egun seinalatuek oroitzen dakartzate gogora, ezta?

Bai. Gure etxean batez ere Gabon gaua eta Eguberri eguna ospatzen genituen elkarrekin. Ama eta bion artean prestatzen genituen otorduak. Nostalgiaz gogoratzen ditut prestatzen genituen janari berezi haiek eta sukaldeko usaina, baita guztia antolatzen elkarlanean ari zela eta familiarekin batzeko irrikaz egotea ere.

“Esango nuke entzuleak nahiko proposamen pertsonala aurkituko duela diskoan”

PABLO BERRIZBEITIA • Musikaria



Hecetu Welo taldeak izen bereko estreinako diskoa kaleratu berri du, boskoteak sortutako hamabi kanta bilduta; Pablo Berrizbeitiak (Deba, 1988) azaldu bezala, plataforma digitaletan entzun daiteke, baina euskarri fisikoa ere aterako dute. Azaroaren 29an Arrasaten emango dute lan berria aurkezteko lehen kontzertua.

Iasnaia Arrutik (teklatuak), Nacho Campok (bateria), Ignacio Polo-Palauk (baxua), Iker Zubizarretak (gitarra) eta Pablo Berrizbeitiak (ahotsa eta gitarra) osatzen duten rock taldeak bere ibilbideko lehenengo diskoa kaleratu du: *Hecetu Welo*. Debarock Kolektiboak Agirre jauregian dituen lokaletan grabatu dituzte kantak eta Amorotoko Musikorta estudioan ondu dute lana. "Oso pozik" daude emaitzarekin eta jadanik entzungai dago Interneteko plataformetan.

Lehenengo diskoa kaleratu duzue urrian: 'Hecetu Welo'. Zer dakar lan berriak?

50 minutuko diskoa da, 12 kantuz osatua. Esango nuke entzuleak nahiko proposamen pertsonala aurkituko duela bertan. Diskoa eta taldea gaur egungo ohiko zenbait moldetatik urruntzen dira, bai iraupenean, bai edukian.

Nolakoa izan da sortze prozesua?

Diskoko abestiak taldeko kideok konposatu ditugu. Normalean ideiak ez dira sortzen lokalean inprobisatzen, bakarka funtzionatzen dugu zentzu horretan; kasu gehienetan, bakoitzak bere etxean landu du ideia orokorra edo kantaren egitura eta gero erakutsi die besteei. Kanta batzuetan pertsona bakarrak egin du dena eta beste batzuetan lankidetzari handiagoa egon da. Aipatu nahi nuke, gainera, Josu Salegi debarrak saxoa jotzen duela *Eman su aretoari* eta *Paretak botatzea* abestietan.



Arg.: MARTIN LORES



Nola joan da grabazioa? Pozik emaitzarekin?

Guk grabatu ditugu kantak, Debarock Kolektiboak Agirre jauregian dituen lokaletan, eta horrek lan handia eskatu digu, ez genuelako esperientziarik auto grabaketan. Baina horrela egin izanak asko irakatsi digu eta oso eskertuta gaude Debarock-ekin. Kolektiboko kide naiz aspalditik eta diskoaren grabazioan beste hainbat kidek lagundu digute. Ekoizpena, berriz, Amorotoko Musikortan estudioan egin dugu. Oso pozik gaude emaitzarekin, asko ikasi dugu eta lan txukuna egin dugula uste dugu.

12 kantaz osatutako lana da. Abesti propioak al dira?

Bai, abesti guztiak guk sortutakoak dira. Oso argi izan dugu hasieratik gure musika egin nahi genuela.

Zertaz mintzo zarete abestietan?

Denetarik dago. Zenbait kanta nahiko introspektiboak dira; bizi izandakoetatik atera dira hitzetako batzuk. Musika bizi duzuna edo sentitzen duzuna adierazteko oso bide aproposa dela uste dut. Dena den, bestelako kantak ere badaude, seriotasunetik edo sakontasunetik aldendu eta gai "arruntagoak" lantzen dituztenak, baina aldi berean nahiko kriptikoak direnak, metaforaz josiak baitaude. Uste dut xarma puntu bat ere baduela abesti batzuen gaia hain agerikoa ez izateak.

Erabaki kontziente bat al da euskaraz kantatzea?

Ez, kantak horrela egitea naturala izan da. Esango nuke taldean ez dugula inoiz honetaz hitz egin; horrela irteten

“Uste dut oraindik ere badagoela txikia izan arren bizirik mantentzen den underground eszena bat, kosta ahala kosta bizirik mantendu behar dena”

zaigu berez. Egia esan, kanten gaiei edo hitzei buruz pentsatzen hasten naizenean ez dut inoiz gazteleraz egiten.

Rock taldea da zuena, baina talde eklektikoa zaretela esana duzue. Zer zentzutan?

Noizbait esan izan dut eklektikoak garela, kanta batzuen artean estilo aldaketa handiak daudelako. Beti iruditzen zait zaila estiloa definitzea eta talde batek egiten duena ulertzeko motz geratzen dela uste dut, baina saiatuko naiz... Egiten dugun guztia rockaren barruan kokatu daiteke, baina batez ere grunge rocka eta soinu psikodelikoak lantzen ditugu, nahiz eta rockaren baitako beste estilo batzuetara ere hurbiltzen garen; blues rocka, stoner rocka eta kutsu progresiboa eta pixka bat metaleroa izan dezakeen kantaren bat ere badago disko honetan.

Nondik dator taldearen izena?

Hecetu Welo-k "Hala bedi" esan nahi du lakota hizkun-



Pablo Berrizbeitia taldeko ahotsa eta gitarra. JANUSZ BORKOWSKI

tzan —Lakota Ipar Amerikako jatorrizko herri bat da, europarrak lur haietara iritsi aurretik egungo AEBetako eta Kanadako mugaren artean bizi dena—. Taldea sortu genuenerako kanta batzuk bagenituen, baina izenik ez oraindik. Justu Nick Estes idazle lakotaren *Gure historia da etorkizuna* irakurtzen ari nintzen eta atentzioa eman zidan *Hecetu Welo* esamoldeak. Taldearentzako izen egokia izan ote zitekeen pentsatu nuen eta esamoldeak berak, bere esanahiarekin, argitu zidan zalantza.

Nondik datorkizu musikarekiko zaletasuna?

Betidanik izan naiz musikazalea. Uste dut hein batean gurasoen Maxi Bar tabernan hazi eta hezi izanak zerikusi handia izan duela horretan. Tabernan musika estilo desberdinak entzuten nituen umetatik eta, handitzean, lanean edo barraren beste aldean ere ordu asko pasa nituen bertan. Gurasoak ere musikazaleak dira eta txiki-txikitatik sartu ninduten musika eskolan.

Aurrez beste musika talde edo proiektu batzuetan ibili zara?

Bai. Nerabezaroan gaztetxeko entsegu lokaletan inoiz izenik izan ez zuten talde batzuetan jotzen genuen eta beranduago beste talde batzuen bertsioak egiten geni-

“Abesti gehiago sortzen ere bagabiltza. Dena ondo baldin badoa, espero dugu hemendik denbora batera beste disko bat iragartzeko moduan egotea”

tuen proiektu ezberdinetan (Osororen mendekua, Retrallica, The time of Noiz).

'Hecetu Welo' diskoa entzungai dago plataforma digitaletan. Dena den, jendaurrean aurkezteko zuzeneko-rik ere izango da, ezta?

Bai. Bi data garrantzitsu ditugu datozen hilabeteotan. Batetik, Natural Project taldearekin batera azaroaren 29an Arrasaten emango dugu aurkezpen kontzertua; berezia izango da guretzat, diskoaren aurkezpena delako eta diskoko bateria grabatu duen eta orain arte taldeki-de izan dugun Aitor Etxagibel arrasatearraren agurra izango delako. Bestetik, urtarrilaren 23koak ere ilusio handia egiten digu, gure oraingo bateria Nacho Camporen aurkezpen kontzertua izango baitugu Mutrikuko Zubiaran tabernan, Koda talde debarrarekin batera.

Sasoiko al dago Euskal Herriko musika eszena?

Sormenari dagokionez baietz esango nuke, jende asko dabil hainbat estilotan gauza interesgarriak egiten. Nahiko adi egoten naiz euskal rockaren eszenari dagokionez eta iruditzen zait askotan iriteten direla kalitatezko lan berriak. Hala ere, talde hasi berrientzat nahiko zaila da kontzertuak lortzea eta agian are zailagoa eszenan leku bat egitea, leku txiki askori zaila zaielako bizirautea eta gero eta hedatuago dagoelako kontzertu handien eta erraldioen eredu; eta hor talde gutxi batzuk mugitzen dira, zirkuitu nahiko itxi batean. Baina, bueno, ez naiz erabat pesimista, uste dut oraindik ere badagoela txikia izan arren bizirik mantentzen den underground eszena bat, kosta ahala kosta bizirik mantendu behar dena eszena osasuntsu bat edukitzeko.

Zer asmo ditu taldeak etorkizunera begira?

Orain gure lehen diskoaren edizio fisikoa prestatzen ari gara; diseinu lanetan Martin Lores ari zaigu laguntzen eta kristoren lana egiten ari da. 100 LPko tirada txiki bat aterako dugu eta oso txukun geldituko dela uste dugu. Horrez gain, datorren urterako diskoa aurkezten jarraitzeko kontzertuak lotzen saiatzen ari gara. Eta, aldi berean, abesti gehiago sortzen ere bagabiltza. Beraz, dena ondo baldin badoa, espero dugu hemendik denbora batera beste disko bat iragartzeko moduan egotea.

Abiatzear da euskaraz bagarela aldarrikatzeko eta ospatzeko egitaraua



Datorren abenduaren 3an izango den Euskararen Nazioarteko Egunaren bueltan egingo da, beste urte batez, Euskeraz Bagera egitasmoa. Bosgarren edizioa izango du aurtengoa eta lau astez luzatuko da egitaraua. Euskara ardatz hartuta, hoguei bat ekitaldi antolatu dituzte Zuhatza Euskara Elkartek, Debako Udalak eta herriko hainbat taldek elkarlanean.

Euskararen erabilera sustatzea helburu duen egitasmoa bosgarren urtez egingo dute aurtien Deban. Zuhatza elkarteak, Debako Udalak eta hamarnaka norbanakok ez ezik, ondoko eragileek ere bat egingo dute zikloarekin: Debako Gazte Asanblada, Kanean Kantuz, Debadazine, Debako Kontalariak, Kultur Elkartea, Bakarriketak Euskaraz, Iturri Ondoan korua, Zubi Guraso Elkartea eta Goimek.

Elkarlanaren emaitza izango da, hortaz, Euskeraz Bagera. Eta guztien artean egitarau zabala prestatu dute, orotara 20 bat jarduera izango baitira aukeran azaroaren 26tik abenduaren 21era bitartean.

Hilaren 18an eman zuten adin guztietako herritarrei zuzendutako

ekintzen berri. Kultureskaintzak askotariko osagaiak izango ditu: umorezko bakarriketak, musika emandaldiak, eskulan tailerrak, liburu aurkezpenak, zinema proiektzioak, ipuin kontaketak, bertso saioak, ikuskizunak... (ondoko orrialdeetan nahiz aldizkariaren kontrazalean ikus daiteke egitaraua).

Parte hartzeko deia

Antolatzaileek ekitaldietan parte hartzeko deia egin diete herritarrei, beste behin ere. "Aisialdiaz euskaraz gozatzeko eta herritarren artean harreman sare berriak eraikitze-ko erronkarekin jaio zen Euskeraz Bagera 2021ean eta hasierako helburuei eusten die. Euskaraz egiten dugu, eta euskaratik; euskarak egiten baikaitu herri, euskaraz bagara".

Bueltan dator umorea, elkarrizketak eta musika uztartzen dituen 'Punpairez'



AZAROAK 28 (OSTIRALA)

Otsailean egin zuten Punpairez *late night* saioaren estreinaldia Deban eta urtea amaitu aurretik bueltan izango da ikuskizuna Kultur Elkartearen. Oraingo honetan, azaroaren 28rako jarri dute hitzordua.

Inprobisazioa ardatz hartuta, umorea, elkarrizketak, musika eta beste hainbat osagai nahasten dituzte ikuskizunean. Maria Blancok aurkeztuko du saioa eta gonbidatuak eta kolaboratzaileak izango ditu bide-lagun. Besteak beste, Xabin Fernandez eta Antonio Iriarte umoregileak ariko dira agertokian eta, aurreratu dutenez, zuzeneko musika ere izango da.

Oholtzan izango diren gonbidatu bereziak ere iragarri dituzte: Itziarko Kalekantoi taldeko Ale, Itziar eta Ihintza Irizar. Aski ezagunak ziren lehendik ere inguruotan, eta are ezagunago bihurtu dira abuztuan egin duten bidaiaren harira. Familiako zortzi kide duela urte asko Islandian euskal baleazaleak ibili ziren txokoetan egon dira udan; bost kontzertu eman dituzte bertan, euskal musika lau haizetara zabalduz.

Publiko orokorrari zuzendutako ikuskizuna 20:30ean hasiko da; Internet bidez eros daitezke sarrerak, 12 euroan, labur.eus/punpaireszkulturdeba estekan.

Gurera ere iritsiko da Zinemaldian saritutako 'Maspalomas' filma



ABENDUAK 7 (IGANDEA)

Jose Mari Goenagak eta Aitor Arregik Donostiako Zinemaldian aurkeztutako *Maspalomas* filma Debara iritsiko da abenduaren 7an. Debadezine elkartearen ekimenez antolatu da hitzordua eta filma euskaraz proiektatuko dute, Kultur Elkartearen 19:00etan.

Jose Ramon Soroiz da protagonista nagusia eta berarekin batera, besteak beste, Kandido Uranga eta Nagore Aranburu agertzen dira filmean.

Soroizek Vicente izeneko pertsonaia hezurmamitu du filmean. Bikotearekin hautsi ondoren, Vicentek gustuko bizimodua darama Maspalomasen: eguzkia, parranda eta gozamina dira bere eguneroko jardunak. Baina, istripu baten ondorioz, Donostiara itzuli eta aspaldi abandonatu zuen alabarekin elkartu beharko da. Zaharren egoitza batean sartzen dutenean "armairura itzultzea" erabakiko du.

Identitateari, zahartzaroari eta askatasun pertsonalari buruzko begirada intimoa eta hunkigarria eskaintzen du filmak.

Maspalomas Donostiako Zinemaldiko aurtengo edizioako Sail Ofizialean lehiatu da; Sebastian saria eman diote luzemetraiari eta Interpretazio Onenaren Zilarrezko Maskorra jaso du Soroizek.

Herriko hamabi musikarik parte hartuko dute aurtengo kontzertu berezian



ABENDUAK 12 (OSTIRALA)

Azken urteotan antolatutako emanaldiek izandako harrera beroa ikusita, herriko musikariek kontzertua emango dute aurtengo urteaz jarraian, Euskeraz Bagera programazioaren baitan. Abenduaren 12an izango da saioa, Kultur Elkartearen (20:00etan), eta sarrera doakoa izango da. Antolatzaileek azaldu dutenez, saioa ikusteko ez da sarrerarik edo gonbidapenik behar; nolahi ere, aretoaren edukiera murrizta kontuan hartuta, lekua hartzera garaiz joateko deia egin diete herritarrei.

Dagoeneko hamarretik gora lagunek osatzen dute agertokian ariko diren musikarien zerrenda: Amaia Arozena, Nahia Eguskizaga, Goizane Aizpurua, Ane Arrizabalaga, Maialen Rosa, Hector Aldalur, Diego Saa, Borja Malabe, Iñaki Lejardi, Julen Salgado, Iñaki Saenz eta Miren Artetxe.

Taldean ariko dira aurtengoan eta emanaldi laburrak egingo dituzte, estilo ezberdineko bospasei abesti interpretatuz. Norberak sortutako kantak eta bertsoak izango dira entzungai euskara hutsean egingo den kontzertu herrikoian.

Orotara ordubete bueltako saioa izango dela azaldu dute antolatzaileek.

'Txillarreko sukaldaria'-ren ekarpena jasotzen duen lana aurkeztuko dute



ABENDUAK 18 (OSTEGUNA)

Asier Ibaibarriagak eta Edurne San Martinek sortutako *Txillarreko sukaldaria* liburua eta izen bereko dokumentala aurkeztuko dituzte Kultur Elkartearen abenduaren 18an, 18:30ean.

Pello Rubiori egindako elkarrizketan oinarritu dute liburua, bai eta dokumentala ere. 2005-2006ko bake prozesura iristeko, bere etxean, Elgoibarko Txillarre baserrian, egin zituzten otordu-bileren berri ematen du Pello Rubiok proiektu honetan. 1999. urtean hasi zituzten bilerak Txillarren. Enpresa mundutik eta militantziazatik ezagutzen zituen bi lagun elkartu zituen Rubiok bere etxean, Paco Egea eta Arnaldo Otegi, politikoki elkarrengandik urrun zeuden bi mundutakoak, alderdi sozialistakoa bata eta ezker abertzalekoa bestea. Paco Egearen eskutik iritsi zen Jesus Eiguren Txillarrera, eta iritsiko ziren gero beste batzuk ere, alderdi batekoak zein besteak. Eta han, bortizkeria-egoeratik bake girora egiteko egin ziren bileren berri ematen du Rubiok, bai liburuan eta baita dokumentalean ere.

Bake bide bat urratzen lagundu zuen baserritarren dokumentala herriz herri dabil azken asteotan. Debako aurkezpenean Asier Ibaibarriaga eta Edurne San Martin proiektuaren egileek parte hartuko dute.

Azaroa / Abendua

AZA. 28 (OSTIRALA)

PALESTINAREN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNA

18:00 'Palestinaren egoera: atzo eta gaur. Orain zer?' hitzaldia. Ispiluen gela.

19:00 Elkartasun zapien salmenta. Udaletxe azpiko arkupeak.

20:00 Elkarretaratzea. Foruen Plaza.

Ondoren Karropoteoa, plazatik hasita.

ELKARRETARATZEA

19:30 Euskal preso eta iheslarien giza eskubideen alde. Foruen Plaza.

PUNPAIREZ

20:30 Euskarazko Late night show-a (helduentzat). Kultur Elkarte.



AZA. 29 (LARUNBATA)

ITSAS HONDAKIN BILKETA

11:00 Hondartza. Izena emateko: 619 81 42 25 edo itsaszaintzasarea@mater.eus

EMANALDIA

12:00 Iturrian korua. Kalez kale.

AZA. 30 (IGANDEA)

OMENALDIA

12:00 Odol Emaile Handiei omenaldia. Simon Berasaluze Plaza.



ZINEMA

16:30 Umeentzako filma: 'Kaixo Frida'. Kultur Elkarte.

19:00 'Touch'. Kultur Elkarte.

BAKARRIZKETA

18:30 'Gregoria: Feminista jaio ala egin egiten da?' (Beatriz Elgezabal). Ispiluen gela.

ABE. 1 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

ABE. 3 (ASTEAZKENA)

BARRENA BADATOR!

18:00 Eskualdeko komunikabide berriaren aurkezpena eta argazki herrikoia. Kultur Elkarte.

KALEJIRA

19:30 Kanean Kantuz.



ABE. 4 (OSTEGUNA)

HITZALDIA

11:00 'Arriskuak Interneten', Arbil Elkarte Sozialaren ekimenez. Kultur Elkarte.

ABE. 5 (OSTIRALA)

BERTSO SAIOA

20:00 Sarrera doan. Gaztetxea.

ABE. 6 (LARUNBATA)

IRTEERA GIDATUA

11:00 'Lastur familian'. San Nikolas Plaza. Erreserbak: geoparkea.eus

TAILERRA

Gabonetako apaingarri ekologikoak. Agirre jauregiko erakusketa gela. **16:00** HHko haurrentzat. **17:30** LH 3 eta 4ko haurrentzat.

ZAINTZAKO BOTIKA Egunez (09:00-22:00)

ZALDUEGI

Aza. 28, 29, 30 / Abe. 12, 13, 14.

BURGEOA

Abe. 8, 9, 10, 11.

Larunbat goizetan beti bat irekita (09:30-13:00)

ZALDUEGI Aza. 29 eta Abe. 6 eta 13.

OHIKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera (09:00-13:45 / 16:30-19:30)

Guardia egunetako igandeak eta jaiegunak (11:00-13:00)

Itziariko botikina (09:00-12:30)

BURGEOA 667 33 88 90

ZALDUEGI 669 26 22 01



**AITOR
TABERNA**

Lersundi kalea 25



**ASESORIA
ARIN**

M. Belen Arrue Lizarralde
Abokatua

Lege zerga, kontabilitate, merkataritza eta lan aholkularitza
Enpresak / Autonomoak
Finken administrazioa, jabeen erkidegoak eta higiezin kudeaketa
asesoriarin@asesoriarin.com

Zestoa
Gesalaga kalea, 22 behea
943 89 70 99

Zumaia
P. Etkezaretza, 15 behea
943 11 71 55

ABE. 7 (IGANDEA)

ZINEMA

16:30 Umeentzako filma: 'Superklaus'. Kultur Elkarte. **19:00** 'Maspalomas'. Kultur Elkarte.

ABE. 8 (ASTELEHENA)

TAILERRA

Gabonetako apaingarri ekologikoak. Agirre jauregiko erakusketa gela. **16:00** LH 1-2ko haurrentzat. **17:30** LH 5-6ko haurrentzat.

ABE. 12 (OSTIRALA)

KONTZERTUA

20:00 Herriko musikarien kontzertua. Kultur Elkarte.



ABE. 13 (LARUNBATA)

GABONETAKO AZOKA

09:30 Herriko ekoizleekin. Plaza Zaharra.

TXAPELKETA

16:00 Eskola Kirolaren Pala Txapelketa. Aldats pilotalekua.

MAHAI-INGURUA

17:00 Garazi Arakistainen eskutik. Burugorri gaina.

UMOREZKO IKUSKIZUNA

20:00 'Blitz' umorezko bakarriketak. Kultur Elkarte.

ABE. 14 (IGANDEA)

MENDI IRTEERA

08:00 Urteko azken irteera (Mutriku-Mutriku). Estalitako pasealekua.

KONTZERTUA

12:30 Goiko Gela euskal gospel taldea. Eliza.

IPUIN KONTAKETA

17:30 Ispiluen gela.

ZINEMA

19:00 'The brutalist'. Kultur Elkarte.

ABE. 15 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.



ABE. 18 (OSTEGUNA)

TAILERRA

11:00 'Elikadura osasungarria', Arbil Elkarte Sozialaren ekimenez. Kultur Elkarte.



GABONETAKO KONTZERTUA

17:00 Debako musika eta dantza eskola. Eliza.

ABE. 19 (OSTIRALA)

'Barrena' eskualdeko astekari berria kalean eta 'Barrena.eus' agerkari digitala ikusgai.

LEHIAKETAK

Gabonetako balkoi, leiho eta fatxaden III. lehiaketa Izen-ematea: abenduaren 1etik 23ra arte, turismo bulegoan.

XX. Tene Mujika beka

Aurkezteko epea: abenduak 14. Oinarriak: deba.eus

DENDA SOLIDARIOA

Kooperazio Taldea Abenduaren 1etik urtarrilaren 6ra arte Portu kaleko lokalean.



ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberrria.com
www.funerariaetxeberrria.com

943 741 327 (24 orduz) / 635 756 295 / 629 635 203

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

AUKERA
INMOBILIARIA


www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

447

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03




SUJIKO

Nola jolastu?

Denbora-pasa matematiko honen helburua lauki-sarean 1etik 9ra bitarteko zenbaki guztiak kokatzea da, bat ere errepikatu gabe. Zirkulu bakoitzaren inguruan dauden lau zenbakien baturak zirkulu barruan agertzen den zenbakiaren balio bera izatea lortu behar dugu. Zorte on!

Erantzuna:





MIKEL IÑIGUEZ
DENTAL STUDIO

“ KIRURGIA GIDATUAK AZKEN PUNTAKO TEKNOLOGIA DIGITALA ERABILTZEN DU. PAZIENTEAREN EBAKUNTZA AURREZ ETA ZEHAZTASUN HANDIZ PLANIFIKATUZ. ”

ABANTAILAK:

- INPLANTEEN KOKAPEN MILIMETRIKOA BERMATZEN DU.
- TRATAMENDU MINIMOKI INBADITZAILEA.
- ERREKUPERAZIO AZKARRAGOA.
- AZKEN EMAITZAREN AURREIKUSPEN DIGITALA.
- DENBORA KIRURGIKOAREN MURRIZKETA.

WWW.INIGUEZDENTALSTUDIO.COM


 INIGUEZ_DENTALSTUDIO

KALEBARREN PLAZA 4W. BEHEA / 20870 ELGOIBAR



616 68 03 11

AHO-KIRURGIA ETA INPLANTOLOGIA


RPS: 81/25



Deba

Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20
20820 Deba, Gipuzkoa

info@debaklinika.com
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
Kirurgia
Implanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

Taxi Alain

Zure zerbitzurik onena

636 135 008 • www.taxideba.eus






Sukalde eta etxe altzarien erakusketa izugarria 3000m²

Itziariko gaina
T.: 943 19 91 00
F.: 943 19 91 01
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



*Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik*

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576
20820 DEBA

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27
943 19 14 47
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Mikel

ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO

ETA BERRIZTAGARRIAK






Hondartza 10 behea,
20820 Deba

T. 943 191 774
M. 699 975 206
info@mikeliturgintza.eus

Calbeton



**Agustín
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ENGLISH SQUARE



SCHOOL
OF ENGLISH

**Ikasi
ingelesa
atzerrian**

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206
info@english-square.net



Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

Deba 2025

EUSKERAZ BAGERA

bakarrizketak
euskaraz

debadezine

DGA
Debako Gaste Asanblada

Debako
KONTALARIAK

Deban
kalean kantuz

DEBAKO UDALA

kultur
elkartea
deba

ZUBI
ZUBI ELKARTEA

Zuhaitza
deba

euskara
elkartea

LAGUNTZAILEAK

LAGUNTZAILEA:
GOIMEK

AZAROAK 28 ostirala

20:30 | 'Punpairez'

Helduentzat | Kultur Elkartean | Sarrera 12€
Salmenta: labur.eus/punpairezkulturdeba

AZAROAK 29 larunbata

12:00 | Iturrian korua kalez kale

AZAROAK 30 igandea

16:30 | Umeentzako film emanaldia:
'Kaixo Frida' | Kultur Elkartean

ABENDUAK 3 asteazkena

Euskararen Nazioarteko Eguna

18:00 | 'Barrena badator!' | Kultur Elkartean
Eskualdeko komunikabide berria
Proiektuaren aurkezpena eta argazki herrikoia

19:30 | Kalean Kantuz

ABENDUAK 5 ostirala

20:00 | Bertso saioa | Gaztetxean

ABENDUAK 6 larunbata

Gabonetako apaingarri ekologikoen tailerra
Agirre jauregiko erakusketa gelan
16:00 | HHko haurrentzat
17:30 | LH 3-4ko haurrentzat
labur.eus/gabonetakoapaingarrientalerra

ABENDUAK 7 igandea

16:30 | Umeentzako film emanaldia:
'Superklaus' | Kultur Elkartean
19:00 | Film emanaldia:
'Maspalomas' | Kultur Elkartean

ABENDUAK 8 astelehena

Gabonetako apaingarri ekologikoen tailerra
Agirre jauregiko erakusketa gelan
16:00 | LH 1-2ko haurrentzat
17:30 | LH 5-6ko haurrentzat
labur.eus/gabonetakoapaingarrientalerra

ABENDUAK 12 ostirala

20:00 | Herriko musikarien kontzertu akustikoa:
Euskeraz bagera! | Kultur Elkartean | Doan

ABENDUAK 13 larunbata

20:00 | 'Blitz' umorezko bakarrizketak
Kultur Elkartean | Sarrera 10€
Salmenta: labur.eus/blitzeuskerazbagera

ABENDUAK 14 igandea

17:30 | Umeentzako ipuin kontaketa
Agirre jauregiko Ispiluen gelan

ABENDUAK 18 osteguna

18:30 | Dokumentala eta liburu aurkezpena:
'Txillarreko sukaldaria' | Kultur Elkartean

ABENDUAK 19 ostirala

'Barrena' astekaria kalean!
Barrena.eus agerkari digitala ikusgai

ABENDUAK 20 larunbata

18:00 | Ispilu(h)ari: 'Mursego'
Musika, performancea, umorea | Ispiluen gela

ABENDUAK 21 igandea

17:30 | Ispilu(h)ari: 'Teilatupean'
Bertso antzerkia umeentzat | Ispiluen gela